


ERANSKINA
2026. URTEKO EKITALDIRAKO ILDO ESTRATEGIKOAK ETA HELBURUAK ETA ILDO
ESPEZIFIKOAK



A1.- 2026. urteko ekitaldirako datu orokorrak

Iruñeko Udalak, haren erakunde autonomoek eta sozietateek 12.200.431,17 €-ko dirulaguntza-jarduera izanen dute 2026. urteko ekitaldian, eta laguntza horiek 16 ildo orokorretan garatuko dira (besteak beste, norgehiagokako araubideko dirulaguntzak, behin betiko onetsitako aurrekontuaren barruan emandako dirulaguntza izendun zuzenak eta betekizun jakin batzuk bete eta gero emandako dirulaguntza zuzenak).

A2.- 2026rako proiektu eta jardueretan diruz laguntzen ahalko den ehunekoa

Oro har, eta 2026. urteko ekitaldirako, ildo estrategikoen barruan egindako proiektu edo jardueren gastuen % 80 laguntzen ahalko da diruz gehienez ere, salbu eta deialdiak eta hitzarmenaren edo ebazpenaren testuak beste ehuneko bat zehazten duen horietan, betiere deialdia egiten duen alorraren justifikazio-txostena aurkeztuta.

Era berean, ezartzen da emandako zenbatekoaren % 75 dirulaguntza emandakoan ordainduko dela, eta gainerako % 25a, berriz, justifikazioa egin ostean, baldin eta alor emakida-emaileak txosten arrazoitua egin eta beste ehuneko batzuk justifikatzen ez baditu.

**1. ILDO ESTRATEGIKOA: GIZARTE
EKINTZAKO GJHak: 1., 2., 3., 4., 5., 10.,
11., 16. eta 17.a**

Helburu estrategikoa:

Zaugarritasun- edo menpekotasun-egoeran eta bazterketa edo gizarte-bazterketa pairatzeko arriskuan dauden autonomia, babesa eta inklusioa bultzatzea, inor atzean uzten ez duen komunitate solidarioagoa, orekatuagoa eta gizarteratuagoa lortzeko xedez.

Lortu nahi diren berariazko helburuak eta ondorioak

- Gizarte-zaugarritasuneko egoeran dauden gizarteratzea bultzatzea, gizartean bete-betean parte har dezaten.
- Haur, familia, emakume eta talde behartsuak laguntzeko programak sustatzea, gizarte-bazterketaren aurka borrokatzera bideratutako ekintzen bidez.
- Auzoetan ekintza komunitarioko proiektuak dinamizatzea eta gizarte-eragileekin batera jarduketa komunitarioak garatzea.
- Herritarrek gizarte-ekimeneko zentro komunitarioak modu arduratsuan erabil ditzaten sustatzea.

Gauzatzeko epea

Urtekoa

Finantzabideak

Udalaren aurrekontua

Kostu ekonomikoa

2.487.000 €

Dirulaguntzak emateko prozedura

Norgehiagokako araubidea eta banakako ebaluazio-araubidea

Dirulaguntzen berariazko ildoak

- Dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko deialdia, ikasturtean zehar ikastetxeak elikagaiz hornitzeko prestazio ekonomikoak emateko dirulaguntzak arautzeko: 870.000 €.
 - Dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko deialdia, familia, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko arrazoiak direla eta 0 eta 12 urte bitarteko adingabeak zaindu behar dituzten familiei prestazio ekonomikoak emateko: 25.000 €.
 - Gizarte Ekintzako Alorraren barruan gizarte-ekintzako berariazko proiektuak eginen dituzten entitate eta elkarteei dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko deialdia: 340.000 €
 - Dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko deialdia, infraetxeetan, etxebizitza desgokietan eta beste egoera batzuetan dauden familien alokairuen laguntza arautzeko: 300.000 €
 - Dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko deialdia, taxi-bonua erabiltzearen bidez desgaitasun larriak dituztenei egokitutako garraiobide alternatiboa eskaintzeko: 200.000
-

€.

- Dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko deialdia, gizarte-larrialdian diren pertsonen eta familien "zuzeneko prestazio ekonomikoak" emateko: 700.000 €.
 - Dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko deialdia, KONEKTA2 programaren barruan egiten diren prestakuntzei laguntza emateko: 15.000 €.
 - Dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko deialdia, Lantegi Eskoletan prestakuntza-bekak emateko: 37.000 €.
-

2. ILDO ESTRATEGIKOA:

**LANKIDETZAKO GJHak: 1., 2., 3., 16.
eta 17.a**

Helburu estrategikoa:

Herrialde behartsuetako komunitateen giza garapena babestea eta garapenaren aldeko lankidetzako programak, giza jarduketak eta larrialdi-jarduketak martxan jartzea.

Lortu nahi diren berariazko helburuak eta ondorioak.

- Garapenaren aldeko lankidetzak eta nazioarteko elkartasuna babestea.
- Hegoaldeko herrialdeetan ekintza humanitarioez eta larrialdietakoez arduratzea.
- Herritartasun globalaren eta nazioarteko elkartasunaren aldeko hezkuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak sustatzea.
- Herritarrak sentsibilizatzeko ekintzen bidez herrialde eta komunitate behartsuenen egoeraren eta egoera hori gaitzatzeko egiten dituzten ahaleginen berri ematea, eta hirian Garapenaren aldeko Hezkuntza sustatzea.
- Hegoaldeko gizon-emakumeen garapenerako programak egiten laguntzea.
- Hondamendi naturalek edo giza jatorriko gatazkek eragindako larrialdi humanitarioen eraginak edo berehalako arriskuen ondorio diren egoeren eraginak arintzeko jarduketak sustatzea.
- Egiten diren jarduketak ebaluatzeko ildo jakin bati eustea.
- Komunikaziorako eta partaidetzarako bideak sustatzea Iruñeko Udalaren eta Iruñean Garapenaren aldeko Lankidetzaren eta Nazioarteko Elkartasunaren esparruan etengabe lan egiten duten GGKEen, taldeen eta erakundeen artean.

Gauzatzeko epea

Urtekoa eta urte anitzekoa

Finantzabideak

Udalaren aurrekontua

Kostu ekonomikoa

1.360.000 €

Dirulaguntzak emateko prozedura

Norgehiagokako araubidea eta banakako ebaluazio-araubidea

Dirulaguntzen berariazko ildoak

- Dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko deialdia, garapenaren aldeko sentsibilizazio- eta hezkuntza-proiektuak egiteko: 120.000 €
 - Dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko urteko deialdia, garapenaren aldeko nazioarteko kooperazio-proiektuak egiteko: 811.000 €
 - Dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko deialdia, unean uneko sentsibilizazio-jarduketak gauzatzeko: 10.000 €
-

- Dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko deialdi publikoa, laguntza humanitarioko eta larrialdietako proiektuak gauzatzeko: 105.000 €
 - Dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko deialdia, hegoaldeko herrialdeetako toki-entitateekin tokian tokiko garapenaren aldeko lankidetzaproiektuak gauzatzeko: 180.000 €
 - Dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko deialdia, garapenaren eta herritartasun globalaren aldeko hezkuntzaproiektuak gauzatzeko: 90.000 €
 - NUKF-aren garapenaren aldeko lankidetzarako Nafarroako toki-funtsean parte hartzea: 44.000 €
-

3. ILDO ESTRATEGIKOA: KULTURA

GJHa: 17 helburuekiko zeharkako kontzeptua

Helburu estrategikoa:

Kultura sustatzeko jarduerak bultzatzea, gizarte osasuntsu, jasangarri, berdinzale, arduratsu eta ekonomikoki bideragarria garatzeko konpromiso globalaren barruan.

Lortu nahi diren berariazko helburuak eta ondorioak

- Iruñeko kultur bizitasuna sustatzea, azpiegiturak sortuz eta kalitatezko ekoizpenak programatuz.
- Kultura sustatu eta hedatzea.
- Kultur ekipamenduak sortzea eta gizartearen partaidetza dinamizatzea.
- Hirigunea zabaltzea eta indartzea, kultur xedeei begira.
- Liburutegi publikoak eta irakurzaletasuna sustatzea.
- Udalaren argitalpen zientifikoak eta dibulgaziokoak argitaratzea.
- Talde profesionalen kultur jarduna indartu eta sustatzea.
- Hiriko kultur erakunde eta entitateen ekimenak, funtzionamendua eta partaidetza bultzatzea.
- Iruñeak berezko dituen gizarte- eta kultura-jarduerak garatzea, hala nola sanferminak eta ekitaldi tradizionalak.
- Auzoetako jaiak eta jai herrikoiak sustatu eta babestea.
- Euskarazko kultur jarduna sustatzea.
- Jarduera-programak sustatu eta garatzea Civivox sarean.
- Sormena sustatzea eta arte plastikoen, antzerkiaren eta musikaren adierazpen garaikideak hedatzea.
- Gayarre Antzokia fundazioaren bidez, programazio artistikoa eta fundazio hori alorrari atxikirik egotearen ondoriozko eginkizunak koordinatzea.
- Udalaren arte-ondarea handiagotu dadin sustatzea.
- Artista gazteen sustapen profesionala egitea, berariaz haiei zuzendutako lehiaketak antolatuta.

Gauzatzeko epea

Urtekoa

Finantzabideak

Udalaren aurrekontua

Kostu ekonomikoa

736.500 €

Dirulaguntzak emateko prozedura

Norgehiagokako araubidea eta banakako ebaluazio-araubidea

Dirulaguntzen berariazko ildoak

- Ediziorako laguntzak: 10.000 €.
 - Dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko deialdia, industria kultural, artistiko eta sortzaileek jarduera kulturalak eta artistikoak egin eta programatzeagatik dirulaguntzak jaso ditzaten. 90.000 €.
 - Entitate kultural eta artistikoei dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko deialdia, urteko kultur proiektu eta jarduera artistiko espezifikoak egiteagatik: 415.000 €.
 - Iruñeko peñei dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko deialdia, sanferminetan hiriko jai-giroa biziagotzeko jarduerak sustatzeko: 85.000 €.
 - Irabazi-asmorik gabeko entitate eta elkarteei (auzo- eta kultura-elkarteak, jai-batzordeak, kultur koordinakundeak etab.) dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko deialdia, auzoetako jaiak eta jai herrikoiak antolatzeke: 90.000 €
 - Antzerki-testuen lehiaketa: 6.000 €.
 - Egile Berriendako lehiaketa: 8.000 €.
 - Sanferminetako kartelen lehiaketa: 9.500 €.
 - Sanferminetako Egile-su Artifizialen nazioarteko Lehiaketa: 10.000 €.
 - Itzulpen-bekaren hitzarmena: 3.000 €.
 - Bertsopaper Lehiaketaren hitzarmena: 4.000 €.
 - Iruñeko Hiria Poesia Lehiaketaren hitzarmena: 6.000 €.
-

4. ILDO ESTRATEGIKOA:
KIROLEKO GJHak: 1., 3., 5., 6.,
11. eta 16.a

Helburu estrategikoa:

Adin eta hiriko sektore guztietan kirol-jarduera fisikoa babestea, bai osasun- eta aisialdi-elementu moduan, bai berdintasun, ekitate, kiroltasun, kooperazio eta integrazioko balioen igorle gisa.

Lortu nahi diren berariazko helburuak eta ondorioak.

- **KIROL EZ-PROFESIONALA ETA ESKOLA-KIROLA**
 - 6 eta 14 urte bitarteko kirolariak dituzten Oinarrizko Kirol Eskolak antolatzen laguntzea;
 - Laguntza ematea ohiko entrenamenduak antolatzen, Iruñeko kirol-elkarteen sareek kirol-lehiaketa ofizial jakin batzuetan parte har dezaten.
- **EKITALDIAK ETA AISIALDIKO KIROLA**
 - Edozein adinetan aisialdiko kirola eta kirol-ekitaldiak antolatzen laguntzea Iruñean.
- **LIGA NAZIONALAK**
 - Laguntza ematea kirol bakoitzeko hiru maila nazional absolutu gorenetakoko liga ofizial federatuetan parte hartzeko.

Gauzatzeko epea

Urtekoa eta urte anitzekoa

Finantzabideak

Udalaren aurrekontua

Kostu ekonomikoa

1.384.000 €

Dirulaguntzak emateko prozedura

Norgehiagokako araubidea eta banakako ebaluazio-araubidea

Dirulaguntzen berariazko ildoak

- Dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko deialdia, denboraldian zehar 6 urtetik gorakoendako kirol ez-profesional ofiziala bultzatzeko: 200.000 €
 - Deialdia, kirolaren zein ariketa fisikoaren arloko entitateei dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko, kirol-jarduera puntualak antolatzeagatik: 205.000 €
 - Kirol-eskolei dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko deialdia: 230.000 €
 - Deialdia, denboraldian zehar kirol-jarduera iraunkor jakin batzuk antolatzen dituzten kirolaren zein ariketa fisikoaren arloko entitateei dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko: 275.000 €
-

- Iruñeko kirol-entitateei dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko deialdia, denboraldian zehar izaera profesionala ez duten estatuko elite-lehiaketa ofizialetan, maila absolutuan, parte hartzeagatik: 474.000 €



5. ILDO ESTRATEGIKOA: HEZKUNTZA

GJHa: 4.a eta gainerakoak, zeharka.

Helburu estrategikoa:

Kalitatezko hezkuntza-programa eta -zerbitzuak gara daitezen eta familiek hezkuntza-ingurunetan parte hartu dezaten bultzatzea, guraso-elkarteen eta ikastetxeen lana babestuta.

Lortu nahi diren berariazko helburuak eta ondorioak.

- Herritar guztiei zuzendutako hezkuntza-programak garatu eta sustatzea.
- Ikastetxeek garatzen dituzten jarduerak sustatzea eta guraso-elkarteen (IGE) zereginetan laguntzea, dirulaguntzen edo berariazko programa bitartez.

Gauzatzeko epea

Urtekoa eta urte anitzekoa

Finantzabideak

Udalaren aurrekontua

Kostu ekonomikoa

410.590 €

Dirulaguntzak emateko prozedura

Norgehiagokako araubidea eta banakako ebaluazio-araubidea

Dirulaguntzen berariazko ildoak

- Guraso-elkarteei eta guraso-elkarteen federazioei dirulaguntzak emateko deialdia, eskola-orduetatik kanpo jarduerak egiteko: 100.000 €
 - Deialdia, Iruñeko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxe publikoei dirulaguntzak emateko, zentro horiek liburutegiz eta irakasmaterialez hornitzeko: 110.330 €.
 - Dirulaguntza-deialdia, jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak egiteko: 175.760 €.
 - Ikaskuntza eta Zerbitzuko proiektuen lehiaketa: 14.000 €.
 - Literatura-lehiaketa: 8.400 €.
 - Neguko kartelen lehiaketa: 2.100 €.
-

6. ILDO ESTRATEGIKOA: **BERDINTASUNeko GJHa: 5**

Helburu estrategikoa:

Ekintza positiboko eta berdintasuna ezarri eta erdiesteko neurri espezifikoak bultzatzea.

Lortu nahi diren berariazko helburuak eta ondorioak.

- Laguntza ematea herritarrek gizon eta emakumeen arteko desberdinkeria-egoerari buruz sentsibilizatzeko jarduerak gauzatzeko.
- LGTBI+ gaiei buruz dibulgatu, sentsibilizatu, aholkuak eman eta laguntza emateko jarduerak egin daitezen sustatzea.
- LGTBI + kolektiboari zuzendutako eta berdintasuna lortzera bideratutako programak gara daitezen sustatzea.

Gauzatzeko epea

Urtekoa

Finantzabideak

Udalaren aurrekontua

Kostu ekonomikoa

179.000 €

Dirulaguntzak emateko prozedura

Norgehiagokako araubidea eta banakako ebaluazio-araubidea

Dirulaguntzen berariazko ildoak

- Irabazi-asmorik gabeko entitateei dirulaguntzak emateko deialdia, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen duten proiektuak egin ditzaten. 159.000 €.
 - Dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko deialdia, LGTBI kolektiboek proiektuak egin ditzaten: 20.000 €.
-

7. ILDO ESTRATEGIKOA:
GAZTERIAKO GJHak: 3., 4., 5. , 11.,
13. eta 16.a

Helburu estrategikoa:

Iruñeko gazte, nerabe eta hurrei zuzendutako programak eta jarduerak sustatu eta babestea, mesedegarriak baitira haien autonomiarako eta garapen indibidualerako, parte-hartzerako, sustapenerako, emantzipaziorako eta prestakuntzarako baldintza onenak lortze aldera.

Lortu nahi diren berariazko helburuak eta ondorioak.

- Jarduerak sustatzea haur, nerabe eta gazteek ohitura osasungarriak izan eta mantentzeko.
- Aisialdi alternatibo eta arduratsua bultzatzea, haur, nerabe eta gazteen garapen pertsonala garatzen laguntzeko.
- Programa eta jarduerak bultzatzea, haur eta gazteek esfortzua, berezko talentua eta gaitasunen aitorpena, haien ezagutzarekiko, sormenarekiko, enpresa-ekimenarekiko, harremanekiko eta giza balioekiko jarrera irekia eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak gara ditzaten.
- Gizalegezko jokabideak eta haur eta gazteen parte-hartzea sustatzea, gizartean elkarrekin bizitzearekin lotutako eskakizunekin bat eginez, betiere berdintasuna, tolerantzia, eta pertsonen eskubideekiko begirunea oinarri hartuta.
- Haur, nerabe eta gazteei zuzendutako programak eta jarduerak bultzatzea, ingurumena errespetatzen eta haren inguruan sentibilizatzen eta hura mantentzen eta hobetzen laguntze aldera.
- Kultur eskaintza erakargarria eta berritzailea duten haur-, nerabe-, eta gazte-programak sustatu eta laguntzea.
- Gazteak lan-mundura sartu eta etxebizitza eskuratzeko lagungarriak diren tresnak lortzea erraztuko duten prestakuntza eta argibideak sustatzea.
- Gaztez osatutako musika- eta antzerki-taldee, elkarteei eta kolektiboek laguntza ematea.

Gauzatzeko epea

Urtekoa eta urte anitzekoa

Finantzabideak

Udalaren aurrekontua

Kostu ekonomikoa

177.000 €

Dirulaguntzak emateko prozedura

Norgehiagokako araubidea eta banakako ebaluazio-araubidea

Dirulaguntzen berariazko ildoak

- Dirulaguntzak banakako ebaluazio araubidean emateko deialdia, bertako artista gazteak laguntzeko xedez: 12.000 €.
- Irabazi-asmorik gabeko entitateei dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko deialdia, haur eta gazteei zuzendutako urteko programak egin ditzaten: 75.000 €.
- Dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko deialdia, ekintzaile gazteek enpresak eratu ditzaten: 60.000 €.
- Deialdia, korrespontsal berriemaileei sariak emateko: 23.200 €.
- Gazteendako literatur lehiaketa: 6.800 €.

8. ILDO ESTRATEGIKOA:

TURISMOKO GJHak: 8.a eta 9.a

Helburu estrategikoa:

Iruñearen estrategiak birbideratu eta batzea, gizarte- eta ekonomia-sektore guztien lankidetzaz bidezko kudeaketa aktiboaren bidez produktu turistiko lehiakorrak merkaturatzeko asmoz, horri esker errentagarritasuna areagotu dadin, urtarokotasun-aldiak murriztu eta gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-jasangarritasunari mesede egiteko.

Lortu nahi diren berariazko helburuak eta ondorioak.

- Dinamizazio-kanpainak, besteak beste, gastronomiarekin, Donejakue Bidearekin, kongresuekin, kirolarekin eta Sanferminetako kontakizunekin lotutakoak, eta balio turistikoko beste hitzordu kultural eta tradizional batzuk bultzatzea.
- Iruñean kontsumo turistikoko esperientzia hobetzea baliabide turistikoak eta enpresa-eskaintza balioetsiz.
- Eskaintza turistiko guztia kontsumo-argudioak ardatz hartuta egituratzea, erakargarriagoa izan dadin eta merkaturatzea errazagoa izateko.
- Iruña ezagutzera ematea helburu duten jarduerak eta ekitaldiak sustatu eta bultzatzea ekitaldi nazional eta nazioartekoetan.
- Hiriko zeharkako politiken –2030 Agenda, berdintasuna eta jasangarritasuna– parte izatea sektoreak garatutako ekintzen barruan.

Gauzatzeko epea

Urtekoa eta urte anitzekoa

Finantzabideak

Udalaren aurrekontua

Kostu ekonomikoa

120.000 €

Dirulaguntzak emateko prozedura

Norgehiagokako araubidea eta banakako ebaluazio-araubidea

Dirulaguntzen berariazko ildoak

- Deialdia, sektore turistikoko elkarteei dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko: 50.000 €.
 - Dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko deialdia, establezimenduen eta turismo-jardueren energia-efizientzia hobetzeko: 50.000 €.
 - Lehentasunezko produktu turistikoekin lotutako babesletza-programa: 15.000 €.
 - Emakumeek ostalaritzako sektorean duten eginkizuna aitortzeko lehiaketa: 5.000 €.
-

9. ILDO ESTRATEGIKOA: HIRIGINTZAKO ETA INGURUMENEO GJHak: 6., 7., 11., 12. eta 13.a

Helburu estrategikoa:

Iruña hiri txukun, jasangarri eta arduratsua izan dadin lortzea, etxebizitza duinerako sarbidea bermatuz, gune naturalak hobetuz eta ondare historikoa hiri- eta gizarte-inguru osasuntsuan zainduz.

Lortu nahi diren berariazko helburuak eta ondorioak.

- Hiriko etxebizitzak zaharberritu, mantendu eta kontserbatzeko ekintzak bultzatzea.
- Ingurumenarekiko arduratsua den hiri jasangarria lortzeko lagungarriak diren ekintzak bultzatzea.

Gauzatzeko epea

Urtekoa

Finantzabideak

Udalaren aurrekontua

Kostu ekonomikoa

2.230.000 €

Dirulaguntzak emateko prozedura

Banakako ebaluazio-araubidea

Dirulaguntzen berariazko ildoak

- Dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko deialdia, udal-mugartean eraikinak goitik behera zaharberritzeko: 2.000.000 €.
 - Dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko deialdia, 61/2013 Foru Dekretuko VI. kapituluko laugarren atalari jarraikiz esku hartzeko proiektu globalak kudeatu eta idazteko: 100.000 €.
 - Dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko deialdia, Alde Zaharrean eraikinak zaharberritzeko aurreproiektuak idazteko: 30.000 €.
 - Baliabide ekonomikorik gabeko jabeei maileguak banakako ebaluazio-araubidean emateko deialdia, eraikinak zaharberritu ditzaten: 100.000 €.
-

10. ILDO ESTRATEGIKOA: HERRITARREN PARTAIDETZAKO

GJHa: 16

Helburu estrategikoa:

Herritarren parte-hartzea sustatzea, Partaidetzarako Erregelamenduaren markoaren baitan, Udalaren eta herritarren artean komunikazio-bideak zein harreman-zubiak ezarrita.

Lortu nahi diren berariazko helburuak eta ondorioak.

- Izaera komunitarioko ekitaldi soziokulturalak sustatzea.
- Herritarren parte-hartzea eta gizarte-ehunak sarean lan egitea sustatzen dituzten jarduketak.
- Herritarren partaidetza eta herritartasun aktiboa sustatzeko esparruan egindako prestakuntza-ekintzak.

Gauzatzeko epea

Urtekoa

Finantzabideak

Udal-aurrekontua

Kostu ekonomikoa

273.000 €

Dirulaguntzak emateko prozedura

Norgehiagokako araubidea

Dirulaguntzen berariazko ildoak

- Herritarren Partaidetzako Deialdia. Dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko deialdia: 270.000 €.
 - *2026ko Gizarte Berrikuntzaren Sariaren* deialdia 3.000 €
-

11. ILDO ESTRATEGIKOA:
MERKATARITZAKO GJHak 11.a eta 12.a

Helburu estrategikoa:

Sektorea hiriko ekonomia-eragile gisa bultzatzea.

Lortu nahi diren berariazko helburuak eta ondorioak.

- Enplegu eta enpresa berriak sortzeko proiektuak bultzatzea.
- Prestakuntza-jarduerak bultzatzea enplegu berriak sortu eta garatzeko eta dagoeneko sortuak daudenak finkatzeko.
- Dinamizazio- eta koordinazio-kanpainak eta informazioa eta komunikazioa hobetzeko kanpainak sustatzea, baita merkataritza eta artisautza bultzatzea ere.

Gauzatzeko epea

Urtekoa eta urte anitzekoa

Finantzabideak

Udalaren aurrekontua

Kostu ekonomikoa

220.000 €

Dirulaguntzak emateko prozedura

Norgehiagokako araubidea eta banakako ebaluazio-araubidea

Dirulaguntzen berariazko ildoak

- CEIN-ekin hitzarmena. Dirulaguntza-deialdia, txikizkako-merkataritza hiriko ekonomia-eragile gisa sustatzeko: 120.000 €
- Dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko deialdia, Iruñeko merkataritza-elkarteei babesa emateko: 100.000 €

12. ILDO ESTRATEGIKOA: GARAPEN KOMUNITARIOKO (HAURTZAROA) GJHak: 3., 4. eta 5.a

Helburu estrategikoa:

Haurren sustapen eta prebentzio komunitarioarako neurriak bultzatzea

Lortu nahi diren berariazko helburuak eta ondorioak.

- Haur eta gazteekin batera prebentziozko eta aisialdia eta denbora librea sustatzeko proiektu komunitarioak garatzea. Haurrak eta nerabeak.

Gauzatzeko epea

Urtekoa

Finantzabideak

Udalaren aurrekontua

Kostu ekonomikoa

484.000 €

Dirulaguntzak emateko prozedura

Norgehiagokako araubidea eta zuzeneko dirulaguntzak.

Dirulaguntzen berariazko ildoak

- Irabazi-asmorik gabeko entitateei dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko deialdia, 2026an haur eta gazteei zuzendutako urteko programak egin ditzaten: 90.000 €.
- Dirulaguntzak zuzenean ematea Gizarte Zerbitzuen Erregistroan Prebentzio Komunitarioko Zerbitzu gisa izena emanda dauden haur eta nerabeen erakunde komunitarioei: 394.000 €

13. ILDO ESTRATEGIKOA:
ADINEKOEN GJHak: 3., 4. eta 11.a

Helburu estrategikoa:

Herritarren parte-hartzea sustatzea, Udalaren eta adinekoen artean komunikazio-bideak zein harreman-zubiak ezarrita

Lortu nahi diren berariazko helburuak eta ondorioak.

- Herritarren parte-hartzea eta adinekoen herritartasun aktiboa sustatzen dituzten jarduketak.

Gauzatzeko epea

Urtekoa

Finantzabideak

Udalaren aurrekontua

Kostu ekonomikoa

115.000 €

Dirulaguntzak emateko prozedura

Norgehiagokako araubidea

Dirulaguntzen berariazko ildoak

- Dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko deialdia, adinekoendako jarduerak sustatzeko: 115.000 €.

14. ILDO ESTRATEGIKOA: KULTUR ANIZTASUNEO

GJHak 10.a eta 16.a

Helburu estrategikoa:

Herritarren parte-hartzea sustatzea, Udalaren eta herritarren artean komunikazio-bideak zein harreman-zubiak ezarrita.

Lortu nahi diren berariazko helburuak eta ondorioak.

- Kultur aniztasuna bultzatzen duten jarduerak.

Gauzatzeko epea

Urtekoa eta urte anitzekoa

Finantzabideak

Udalaren aurrekontua

Kostu ekonomikoa

50.000 €

Dirulaguntzak emateko prozedura

Norgehiagokako araubidea

Dirulaguntzen berariazko ildoak

- Herritarren Partaidetzako eta Kultur Aniztasuneko Alorrek norgehiagokako araubidean deitutako deialdia: 50.000 €.

15. ILDO ESTRATEGIKOA:
EUSKARAREN GJHak: 10.a eta 16.a

Helburu estrategikoa:

Euskararen erabilera sustatzen duten jarduerak bultzatzea, genero-ikuspegia txertatuta, eta euskara ikas dadin sustatzea.

Lortu nahi diren berariazko helburuak eta ondorioak.

- Euskara ikastea eta erabiltzea sustatzen duten jarduerak.

Gauzatzeko epea

Urtekoa

Finantzabideak

Udalaren aurrekontua

Kostu ekonomikoa

188.000 €

Dirulaguntzak emateko prozedura

Norgehiagokako araubidea

Dirulaguntzen berariazko ildoak

- Dirulaguntzako norgehiagokako araubidean emateko deialdia, iruindarrei euskara ikasteko dirulaguntzak emateko: 70.000 €.
- Dirulaguntzak irabazi-asmorik gabeko entitateei emateko deialdia, euskara sustatzeko proiektuak egin ditzaten: 118.000 €.

16. ILDO ESTRATEGIKOA: ILDO IZENDUNAK

Helburu estrategikoa:

Parte-hartzea, sormena eta proiektuen garapena sustatzea hiriko herritarrek, entitateek eta horiekosatzen dituzten taldeek berezkoak dituzten esparruetan.

Lortu nahi diren berariazko helburuak eta ondorioak.

- Hiriko kultura eta balioak garatzeko jarduera tradizionalak egiten dituzten entitate, talde eta herritarrekiko harremana finkatzea.
- Kulturaren eta gizartearen garapena eta integrazioarekin, elkartasunarekin eta abarrekin lotutako balioen hedapena sustatzea adin guztietako iruindarren artean.
- Laguntzak ematea zaurgarritasun-arriskuan dauden eremuetan hiria birgaitzeko lanak egiteko.
- Pertsona, talde eta entitateen jokabide, jarduera, ekarpen eta proiektuen aitorpena egitea, komunitatearen alde kulturari, ekonomiari eta gizarteari egindako ekarpenengatik.

Gauzatzeko epea

Urtekoa eta urte anitzekoa

Finantzabideak

Udalaren aurrekontua

Kostu ekonomikoa

1.786.341,17 €.

Dirulaguntzak emateko prozedura

Zuzeneko dirulaguntzak.

Dirulaguntzen berariazko ildoak

- Urteko aurrekontuen kargura, Osoko Bilkuraren erabaki bidez onetsitako 34 dirulaguntza izendun.
-